

**ARTEAREN MEMORIA HEZKUNTZAN:**  
**LEHEN HEZKUNTZARAKO MATERIAL DIDAKTIKO**  
**BERRITZAILEA<sup>1</sup>**

Amaia Elizalde Estenaga, Izaro Arroita Azkarate

Euskal Herriko Unibertsitatea

### **Laburpena**

Azken hamarkadetan frogatu da Arte Bidezko Ikerketa eta Ikaskuntza paradigma teoriko-metodologiko emankorra dela haur eta nerabe gazteen ikaskuntza prozesuetan (Leavy 2021). Era berean, Enpatia Historikoaren aktibaziorako aukera didaktikoa izanik, iraganeko gizarte gatazken memoria lantzeko molde posible bat ere bada, zehazkiago. Ildo pedagogiko hori garatzeke dago gurean, ezin esan baitezakegu eskoletan egiten den iraganaren lanketa molde historiografiko klasikoaz (diskurtso historiografiko “objektibo” jakin baten ikaskuntzan oinarritua dena) haragoko metodoez aberastu denik modu sistematikoan. Memoria Ikasketen proposamen berrien arabera, ordea, memoria kulturalaz (Assman 2008, Erll 2008, 2011) ari garela berdin dira kontuan hartzekoak diskurtso historiografikoak zein artistikoak, baita testigantza gisa ere. Lan honetan aurkezten dugun *Artearen Memoria* material didaktiko berritzaileak bestelako bideak ireki nahi ditu aipatutako oinarri teoriko-metodologikoetatik abiatuz, beti ere gaur egungo curriculumarekin guztiz lotuta dagoen diziplinarteko proposamen didaktikoen bidez. Hala, lan honen helburua da Euskal Herrian eragin sakona izan duten gizarte gatazken lanketarako sortutako material didaktikoaren sorrera eta ibilbidea, oinarriak, izaera eta egitura deskribatzea.

**Gako hitzak:** Hezkuntza, Memoria kulturala, Arte Bidezko Ikerketa eta Ikaskuntza, Enpatia Historikoa.

### **Resumen**

---

<sup>1</sup> Lan hau honako proiektuen baitan garatu da: MHLI: IT 1579-22 (Eusko Jaurjaritza), PID2021-125952NB-I00 (Ministerio de Ciencia e Innovación).

En las últimas décadas se ha demostrado que la Investigación y el Aprendizaje basados en las Artes es un paradigma teórico-metodológico fecundo en los procesos de aprendizaje de los niños, niñas y adolescentes jóvenes. Asimismo, siendo una oportunidad didáctica para la activación de la Empatía Histórica, es también una forma posible de trabajar la memoria de los conflictos sociales del pasado. Esta línea pedagógica está pendiente de desarrollo en las aulas vascas, ya que el abordaje del pasado no parece haberse enriquecido sistemáticamente con métodos más allá de la aproximación historiográfica clásica (basada en el aprendizaje de un determinado discurso historiográfico “objetivo”). Según las propuestas más recientes de los Estudios de la Memoria, sin embargo, en lo que se refiere a la memoria cultural (Assman 2008, Erll 2011) son igualmente dignos de consideración tanto los discursos historiográficos como los artísticos, incluso tomados como fuente testimonial. El innovador material didáctico *Artearen Memoria* que presentamos en este trabajo pretende abrir otros caminos a partir de las citadas bases teórico-metodológicas, siempre a través de propuestas didácticas interdisciplinarias y plenamente relacionadas con el currículo actual. Así, el objetivo de este trabajo es describir la génesis y el recorrido, fundamentos, naturaleza y estructura del material didáctico creado para la elaboración de conflictos sociales que han tenido una profunda influencia en Euskal Herria.

**Palabras clave:** Educación, Memoria cultural, Investigación y Aprendizaje por las Artes, Empatía Histórica.

## **Abiapuntua eta sortze prozesua**

Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan ikerketa taldean denbora luzea zen irakaskuntzari lotutako ildo bat zabaldu nahi genuela. Hiru urteko prozesu baten ostean, proiektu zehatz bat ontzea lortu genuen eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) antolatzen duen 'Unibertsitate-Gizarte-Enpresa proiektuak 2021' deialdira aurkeztu genuen gure proposamena Erein argialetxearekin batera: Memoriaren Artea eta Artearen Memoria Hezkuntzan. Proiektua diruz babestearen onarpenak zilegitasuna eman zion aski berritzaile eta oraindik guztiz definitu gabea zen gure apustuari.

2019. urtean ekin genion iraganeko gertaera gatazkatsuak literatura baliabidetzat hartuz material didaktiko zehatzak sortzeari, baina berehala ohartu ginen sortzen genituen proposamenek hainbat gabezia zituztela, jadanik existitzen ziren beste material batzuetan ere identifikatzen genituenak: literatura abiapuntu edo baliabidetzat hartzen genuen, baina ez bidetzat; ikaslea hartzaile eta azterle rolean jartzen genuen, ez sortzailearenean; ez genuen beste arte adierazpenekin lotura sistematikorik egiten; ez genuen metodologia jakin bat jarraitzen, nukleo tematikoen inguruko literatur testuen irakurketa eta ariketen proposamen klasikoaz harago; proiektatzen genuen talde hartzailea bigarren hezkuntzako goi mailetakoa zen; ukitzen genituen gatazken memoriak Hego Euskal Herrikoak eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegokoak (EAE) ziren eta azkenik, gatazka horiek normalki iragan urrunean kokatzen ziren.

Horiek horrela, berez sortzeko joera geneukan horretatik aldendu eta helburu orokor batzuei erantzungo zien material didaktiko bat eraikitzeko bideari ekin genion. Helburu horiek honakoak izan ziren:

- Euskal Herriko edozein eremutan eragin sakona izan duten gatazkak lantzeko baliagarria izatea.
- Artea baliabide eta bide gisa erabiltzea.
- Lehen Hezkuntzako etaparako aplikagarria izatea.

Argi ikusi genuen helburu horiek lortzeko lehendabizi hausnarketa eta prestakuntza fase bat beharrezkoa zela, gaiarekin lotutako agente ezberdinak entzun eta haiekin batera

pentsatzeko nahiz literaturaz gainerako beste arte adierazpenek zer aukera ematen ziguten ikertzeko. Horretarako antolatu genuen 2021. urteko urtarril-osailean “Memoria eta gatazka euskarazko hezkuntzan: literatura eta beste arteak (balia)bide” on-line workshop sorta. Bertan elkarrizketan aritu ginen artistekin, historialariek, gatazken memoria eskoletan lantzen jardun duten irakasle nahiz elkarteekin eta didaktikaren arloko adituekin, gaia zelarik arteak gatazken memoria lantzerakoan egin dezakeen ekarpena zein, zenbaterainokoa eta nolakoa izan daitekeen.

Elkarrizketa horien ostean gure asmoak indartu egin ziren: literatur lan bat abiapuntutzat hartuz, arte adierazpide askotarikoak bide eta baliabidetzat izango zituen material didaktikoa sortuko genuen, Euskal Herrian eragin sakona izan duten iraganeko gatazken memoria lantzeko. Material didaktikoa sortzeari ekin genion, hiru lan-lerro bereiziz: jadanik existitzen ziren material didaktikoen azterketa sakona, corpus literarioa zehaztea eta arte adierazpide ezberdinen ekarpenak aztertzea. Azken horretarako, Esther Uria Iriarte (dramatizazioa eta antzerki teknikak) eta Alex Carrascosa (arte plastikoak) adituen nahiz Ikertze taldearen formakuntza eta laguntza izan genituen.

Hausnarketa eta prestakuntza prozesu horren ostean, hautatu genituen bi liburuen bueltan proposamen didaktikoa materializatzeari ekin genion pixkanaka-pixkanaka eta, azkenik, material horrek errealitatean nola funtzionatzen zuen ikusteko martxan jarri genuen 2023ko urri eta azaro bitartean Errenteriako Herri Arte Eskolan, Beñat Ralla zuzendari pedagogikoaren eta Eider Perez irakaslearen laguntzaz. Prozesua osorik dokumentatu genuen Anuska Ariztimuño ikus-entzuketako profesionalaren bitartez. Euskarri horretan bildutako informazioa baliagarri izan zaigu proiektuaren zabalkunderako nahiz prozesua eta emaitzak aztertzeko, saio bakoitzaren ostean hurrekin elkarrizketa laburrak ere izan baititugu egindako lanari buruz.

Martxan jartze horren ondoren materialari egin beharreko zenbait doikuntza identifikatu eta egin ziren, maketaziorako Ereinen eskuetan utzi aurretik. Diseinu eta maketatzean Iban Illarramendiren lankidetzaz ere izan dugu eta bera arduratu da testuak lagunduko dituzten irudiak sortzeaz, inspirazio iturri gisa erabiliz proposatzen den literatur irakurgaiaren iruditeria.



*Proiektuaren azalpenaren eta materialaren martxan jartzearen bideoetarako sarbidea.*

*(MHLIren webgunea)*

### **Oinarri teoriko-metodologikoak**

Material didaktikoaren abiapuntuan Arte Bidezko Ikerketa eta Ikaskuntzaren (ABII) aldeko apustua dago, baina garrantzitsua da azpimarratzea planteamendua berritzailea den arren, curriculumaren eskakizunekin erabat bateragarria dela. ABII unibertsitateko ikerketa esparruan ez ezik haur eta gazteen hezkuntzaren esparruan pixkanaka txertatzen ari den apustu metodologiko bat da, arte adierazpidearen alde egiten duena ikerketa eta ikaskuntza prozesuetarako. Ebidentzia zientifikoa dago frogatzen duena epe luzeko ikaskuntza esanguratsua lortzeko oso egokia dela artearen erabilera (Leavy 2021). Gainera, adierazpen linguistikoan trebatuegi ez dauden haur eta nerabe gazteentzat adierazpide eraginkorragoa izan daiteke artistikoa (Liamputtong and Rumbold 2008), bai eta komunikazio egoera arruntetan esaten zailak izan daitezkeenak adierazteko ere.

Gure kasun, ABII proposatzen dugu iraganeko gatazken memoria lantzeko eta, horretarako, metodoaren luze-zabalean txertatu dugu dimentsio artistikoa. Batetik, iragan gatazkatsuen ikerketa eta ezagutza bidean zehar, literaturarekin, arte plastikoekin eta dramatizazioarekin lotutako arte adierazpenak interpretatzeko jarduerak daude eta, bestetik, arte adierazpena martxan jartzekoak. Era berean, ebaluazio figuroanalogikoak ere irudimena sustatzen du prozesuan zehar proposatzen ditugun gogoetarako uneetan, ikasleek aukera izan dezaten egiten ari diren bidez hausnartzeko, maila pertsonalean nahiz kolektiboan. Hala ere, arte adierazpena erdigunean ipini duen metodologia sortu badugu ere, bestelako baliabideekin ere osatu dugu ikas prozesua: egunkarietako berriak, ahozko testigantzak, argazkiak, informazio entziklopedikoa eta abar.

Arteak ikaskuntza prozesurako dakartzan onura orokorreaz gain, badira beste bi arrazoi gatazken lanketarako modalitate hori aukeratzeko. Ugariak dira datu eta testu

historiografikoen irakurketa proposatzen duten planteamendu didaktikoak, normalki datu objektiboetan eta lehen mailako iturrietan oinarritzen direnak. Guk proposatzen ditugun aztergaiak, ordea, ez dira paradigma horretan erabili ohi diren dokumentu ofizialak, arte adierazpenak baizik eta, gainera, gertakari historikoen testigantza diren artelanez gain, gerora gertakari horien oihartzuna orainera ekarri duten arte adierazpenak ere proposatzen ditugu. Hala, esan dezakegu gure aztergaia memoria kulturala dela eta, bereziki, esparru artistikoa, nahiz eta ez ditugun bestelakoak –historiografikoa barne– alboratzen. Metodo historiografiko klasikoa dei geniezaiokeenaren ildo didaktiko horri daukan balioa kendu gabe, iraganari dimentsio enpatikoagoan heltzeko baliagarri izango den metodoa sortu nahi izan dugu, emozioak eta hausnarketa kritikoa era zuzenagoan inplikatu dituen. Beraz, aztergaiaren aldaketa ez dagokio soilik objektuari, iturriari; baita horri begiratzeko moduari ere. Arteak, giza esperientziaren adierazpena den aldetik, iraganaren ulermen gizatiarragoa eskaintzen du (Epstein 1994; Gabella 1995; Endacott eta beste 2023) eta, era berean, sormen artistikoa baliagarri da iragan horietara hurbiltzean ulertzen eta sentitzen dena adierazi nahiz transformatzeko.

Aipatutako abiapuntu teoriko metodologikoaren beste ardatz bat diziplinartekotasuna da. Proposamen didaktikoak guztiz bat egiten du EAEko eta NFEko hezkuntzarako marko legalek iturri duten dekretuarekin (*157/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituenak*) eta hainbat urtez aldarrikatu izan den jakintza arlo ezberdinen arteko lotura du oinarri. Metodo didaktikoaren bi gauzapean diseinatu ditugu, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora zuzendua bata, eta bigarrenera bestea. Etapa eta ziklo horien baitan gure proposamen didaktikoek elkarlotzen dituzten arloak dira Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza, Euskara eta literatura eta gaztelania eta literatura, Heziketa fisikoa eta Balio zibiko eta etikoetako heziketa. Bestalde, nahiz eta prozesua ebaluatzeko nahiz autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko eta hausnarketa bideratzeko baliagarria den ebaluazio figuroanalogikoa proposatzen dugun, irakaslearentzako ebaluazio errubrikak ere sortu ditugu curriculumaren ebaluazio irizpideak oinarritzat hartuta.

Gaur egungo testuinguru curricularrak eskatzen duen gisa, Agenda 2030en ageri diren hainbat Garapen Jasangarrirako Helbururekin bat egiten du sortutako materialak. Egun martxan den curriculumean (2023, 35-36) Lehen Hezkuntzako etaparako zehazten den irteera profilarri lotuta, proposatzen dugun materiala honako ikaskuntzak eskuratzera dago bideratuta:

- Sentsibilitatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, empatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, empatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.
- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Era berean, proposatzen dugun metodoak bat egiten du curriculum horrek bere egiten duen “Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea” Garapen Jasangarrirako 4. Helburuarekin. Gorago aipatu bezala, ABIIrekiko apustu metodologikoa egin izanaren helburu bat da hezkuntza formalaren eremura ekartzea adierazpen artistikoak eskaintzen dituen aukerak inklusiorako eta ikerketa-ikaskuntza bide berriak esperimentatzeko. Era berean, diziplinarteko proposamena den heinean, jakintzen konpartimentalizazioa gainditzeak dakartzan abantailak bereganatuko dituen planteamendua eraiki nahi izan dugu.

Hautu metodologikoekin baino jorratzen diren gaiekin lotuta, sortutako materialak 16. helburuarekin lotura estua dauka, “Gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrek eta inklusiboak sortzea maila guztietan” deritzonarekin. Metodoa iraganeko edozein gizarte gatazka eta horien memoria lantzeko baliagarri bada ere, gure proposamen didaktikoetan bazterreko edo ikusezin diren errealitateak kontuan hartzen ahalegindu gara, justizia sozialaren xedeen ildotik. Nolanahi dela ere, fokalizazio hori ez da hasieratik egiten, gatazkaren lanketa interartistiko orokor baten ostean baizik, literatur lanaren irakurketa interartistikoan murgiltzerakoan. Hala, proposamenetako batean 36ko altxamendu militarra pairatu

zutenen egoeran eta bizipenetan ipini dugu fokua, hainbat hamarkadetan erakundeek isilarazi zuten injustiziarekiko diskriminazio positiboa eginez. Beste proposamenean iragan hurbileko euskal gatazkan eta, zehazkiago, dispertsioaren eragina pairatu dutenengan ipini dugu arreta, gaur egun antzerako tratamendu instituzionala jasotzen duen errealitatea baita. Ikustezina edo bazterrekoa denari arreta eskaintzeko joera horretan ezartzen da, hain zuzen ere, Garapen Jasangarirako 5. Helburua “Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea”, alegia. Hautatutako literatur lanen pertsonaia nagusiak neskatoak dira eta, beraz, tradizionalki arretarik eskaini ez zaien horien ahotsak ekartzen ditugu erdigunera. Isiltasunaren eta esan ezinaren gaia oso presente duten proposamen didaktikoak diren aldetik, gatazken eraginaren lanketa ikuspegi interseksional batetik egitea ahalbideratzen du protagonista horiek dituzten obrak hautatu izanak.

### **Egitura eta izaera**


*Artearen memoria hezkuntzan* metodo bat da, gorago aipatutako ideia eta xede pedagogikoetan oinarritzen dena. Metodo hori aplikatzeko bi proposamen didaktiko sortu ditugu, bakoitza LHko ziklo bati zuzenduta eta Euskal Herrian jazo den gizarte gatazka ezberdin baten memoriari lotuta. Hala ere, gure helburua da metodo hori baliagarri izatea beste edozein gizarte gatazkaren memoria lantzeko eta, hori ahalbidetzeko, XX eta XXI. mendeetan Euskal Herrian eragin zuzena izan duten gatazken memoria lantzeko materialak biltzen dituen *corpus* bat osatu dugu (literatur lanak, margolanak, bertsoak, hemerrotekako baliabideak, informazio entziklopedikoa eta abar). Bi proposamen didaktikoak gauzatu ahal izateko ere, material hautaketa bat egin dugu, bakoitzaren gaia eta hartzaileen adina izan direlarik irizpide nagusi. Irakasleek material horiek bilatu behar ez izateko “Ikasgelarako materiala” baliabidea sortu dugu proposamen didaktiko bakoitzarentzat.

Metodoaren hezurdurari dagokionez, egitura hirutarra du: “Beroketa”, “Gatazkarekiko hurbilpen interartistikoa” eta “Irakurketa interartistikoa”. Proposatzen dugun planteamendu didaktikoak irakaskuntza-ikaskuntza egoeretan egoteko eta jarduteko modu ezberdin bat eskatzen du, esan bezala; izan ere, gorputz adierazpena eta mugimendua inplikatzeko duten zenbait jarduera daude, material ezberdinekin eskulanak egitekoak, ozen irakurtzeko eta elkarrekin gogoeta egiteko uneak eta abar. Horrek guztiak



ohiko jarreretatik aldendu beharra eskatzen du eta, horretarako, mugimendua, keinua eta ahotsa aktibatzekeo baliagarri diren ariketak biltzen dituen “Beroketa” atala osatu dugu, ohikotasunetik ateratzen eta arreta espaziora, gorputzera, mugimendura eta ahotsera ekartzen lagunduko duena. Era berean, gatazken izaera orokorra irudikatzekeo eta horri buruz hausnartzeko jarduerak ere biltzen ditu atal honek, hala, geroago testuinguru zehatzetan jorratzen diren gatazken oinarritzko irudikapena eta hausnarketa abiatzekeo.

Beroketaren ostean, landu nahi dugun gizarte gatazkaren memoriaren testuinguruan murgiltzea proposatzen dugu “Gazkarekiko hurbilpen interartistikoa” fasean. Atal honetan proposatzen ditugun jardueren bidez, gatazkaren inguruko arte adierazpenak aztertzen dira, bereziki, baina baita hemerrotekako testuak eta ahozko testigantzak ere, hausnarketa eta sormena sustatuaz. Helburua da askotariko iturrien bidez landu nahi dugun memoriaren jatorritzko gertakarien dimentsio ezberdinak biltzea eta artea erabiltzea, testigantza gisa ez ezik, iragan horren ezagutzarako eta transformaziorako praktika gisa. Askotariko materialak ikasleen esku jartzeak ohiko testuinguratze praktiken aberastea dakar eta ikertzekeo jarrera aktibatzen du, testuingurua kontatu orde z erakutsi egiten delarik. Era berean, testigantzen jatorri askotarikoak errealitatearen ikuspegi poliedrikoagoa erakusten du eta, informazio entziklopedikoarekin ere osatzea komeni den arren, azken horrek ahaztu ohi dituen giza eta gizarte aspektu hainbat berreskuratzen ditu: garaian garaiko komunikabideen eragina, norbanakoen historiak eta emozio indibidual zein kolektiboak, esaterako. Hona hemerrotekako materialen erabileran oinarritutako ariketa baten deskribapena:



*1. irudia: Kartulina egunkari zatiekin estaltzen.*

## ZER BERRI?

**Materiala:** Boligrafoa, Din A4 tamainako koloretako kartulinak, errotuladoreak, guraizeak, kola, iritzi-binetak, egunkarietako azalak eta aurreko jardueran osatutako *Post-itak*.

Proposamen didaktiko honetarako baliatu direnak (ikus «Ikasgelarako baliabideak»):

- Egunkari orriak: *Euskaldunon Egunkariaren* 1998ko uztailaren 16ko portada eta egun bereko *ABCren* azala.
- Binetak: *Euskaldunon Egunkariako* 1998ko uztailaren 16ko bineta, *Mattin egilearena* eta *El Mundoko* 1998ko uztailaren 21eko bineta, *Gallego y Rey egilearena*.

**Espazioa:** Aulki eta mahaiez gain espazio huts bat izango duen gela.

**Denboralizazioa:** 30 minutu.

**Taldekatzea:** Talde txikian eta talde handian.

**Garapena:** Artelanetatik komunikabideetara egingo dute jauzi, eta gertaera berari buruzko diskurtso kontrajarriak aztertuko dituzte. Helburua gatazka egoeretan sortzen diren posizionamendu kontrajarriak ezagutzea izango da eta komunikabideekiko begirada kritikoa sustatzea. Mundu-ikuskerara eta errealitate beraren gaineko ulerkera desberdinetara hurbilduko dira. Horretarako albiste eta iritzi-binetak izango dituzte langai eta haien errealitateaz bestelako begiradak ezagutzeko eskulturak sortuko dituzte.


1. Albisteen objektibotasuna zalantzan: Jarduera honen helburu nagusia da bertsio ofizialak eta egunkarien objektibotasuna zalantzan jartzea. Gertakari berari lotutako albiste eta iritzi-binetak aztertuko dituzte eta ikusiko dute iturriaren arabera aldatu egiten dela bertsioa. Horretarako, talde txikitan bilduko ditugu eta taldeetako bakoitzari iritzi-bineta pareta edo egunkarietako azalak emango dizkiogu. Esango diegu esleitutako materiala aztertu ostean beste talde txiki batekin elkartu eta elkarri azaldu beharko diotela egunkarietako azaletatik edo iritzi-binenetatik atera ahal izan duten informazioa. Horiek aztertzeko denbora eskaini ondoren, bi talde txiki elkartu (azalak aztertu dituen talde txiki bat eta iritzi-binetekin aritutako beste bat) eta elkarri horietan kontaktzen dena laburbiltzeko eskatuko diegu. Ondoren, denen artean galdera hauek erantzun beharko dituzte: *Zer kontaktzen da berrietan? Nola lotzen dira berriak bi binetekin? Zein ezberdintasun dago haien artean? Bateragarriak al dira berrietan eta binetetan ageri diren ikuspegiak? Zergatik? Zer kontatu nahi du bertsio bakoitzak?*

2. Paperetik eskulturara: Galdera horiek taldean eztabaidatu ostean, talde handian batzuen eta besteen hipotesiak trukatzeko eta berriak iruzkintzeko eskatuko diegu. Beharrezkoa bada, ikasleek falta duten informazioa osatuko dugu eta sortutako galderak argitu. Jarraian, komunikabideen izaera irudikatzeko eskultura bat eraikiko dutela esango diegu ikasleei. Eskultura horiek osatzeko jarraitu beharreko prozedura honakoa izango da:

- Ikasle bakoitzak Din A4 tamainako kartulina bat hartuko du eta erditik moztu.
- Errotulagailu bat hartu eta zati horietako batean hiru hitz idatzi, aurrealdean zein atzealdean. Hiru hitz horiek «Testigantzak irudikantuz» jardueran osatutako *Post-it*etik aukeratu beharko ditu ikasleak.
- Idatzirik ez duen kartulina erdia eskulturaren oinarria izango da eta gerorako gordeko du, beraz. Beste erdiarekin eskultura osatuko du, guraize batekin mozketak eginuz eta moztutako zatiak tolestuz, kartulari zatirik kendu gabe. Horretarako araua ondorengoa izango da: Zatirik ez kentzen ahaleginduko dira eta, baten bat kenduz gero, eskulturaren integratu beharko dute, itsatsiz. Denbora aurrez ezarriko da (irakasleak eskaini nahi dionaren arabera).
- Amaitzeko eskulturaren oinarria egingo du: beheko aldearen erdialdean zentimetro bateko bi mozketa egingo dizkio eskulturari, eta zatietako bakoitza kontrako noranzkoan tolestuko du. Eskulturaren hankak oinarria izango den beste kartulinan itsatsiko ditu kolaz, zutik mantendu dadin.

3. Bestaldean zer?: Eskultura osatu ostean, lehengo talde txiki beretan bilduko dira ikasleak borobilean, eskulturak erdian jarrita daudela. Ikasle bakoitzak bere ikuspegitik begiratuko die eskulturei. Honako galdera hauek egingo dizkiegu: *Zer irakur daiteke zure eskulturaren zauden lekutik begiratuta? Zeren itxura du zure eskulturak sortzen duen itzalak? Zer da, zure kokalekutik ikusita, zure eskultura? Eta ondoren zera eskatuko diegu: Bada, idatz ezazue bakoitzak zuen ikuspuntuari dagokion eskulturaren oinarrian: "Hau .... da". Denek amaitu dutenean, eskulturak dauden lekuan utzi eta ikasleak gainerako eskulturak aztertzeraz gonbidatuko ditugu. Nahi izatekotan, gainerako ikasleek ere euren kokalekuetatik ikusten dutenaren araberrako definizioak gehi ditzakete eskulturetan. Azkenik, hurrengo ariketarako zubia eginuz, tertulia labur bat bideratuko dugu galdera hauetatik abiatuta: *Zer lotura du eskulturekin egin dugun honek albiste eta iritzi-binetekin ikusi dugunarekin? Errealitatean gertatu zaizue inoiz horrelakorik? Nola eragiten du gure kokalekuak, orokorrean, errealitatea ulertzeko dugun moduan? Gai gara guk ikusten ez dugun bestalde horretan zer dagoen irudikatzeko?**

Gatazka testuinguruan kokatu ostean, literatur lan baten “Irakurketa interartistikoa” proposatzen dugu. Fase honetan, gatazken lanketan sakonduko dugu irakurketa kolektibo, zatikatu eta multidimentsionalaren bidez. Hautatutako literatur testuak egokia izan behar du talde hartzailearen adinerako, eta landu nahi den gizarte gatazkaren memoria jorratu behar du. Diseinatu ditugun bi proposamenei dagokienez, LHko bigarren ziklorako Leire Bilbaoren (idazlea) eta Maite Mutuberriaren (ilustratzailea) *Gerrak ez du izenik* (2013) aukeratu dugu eta LHko hirugarren ziklorako Castillo Suarezren (idazlea) eta Aitziber Alonso Pikabearen (ilustratzailea) *Nemo kapitainaren azken bidaia* (2017). Aurrez aipatu bezala, Gerra Zibilaren hasiera garaian kokatzen da lehena, eta bigarrena, aldiz, Euskadi Ta Askatasunaren borroka armatuari lotutako azken garaian. Bi liburuak ilustratuak izateak aukera ematen digu iruditeria hori erabiltzeko prozesu artistikoen abiapuntu gisa, baina ez da ezinbestekoa. Irakurketan zehar geldiuneak proposatzen ditugu, horietako bakoitzean fikziozko egoeran sakontzeko jarduera artistikoak egiteko. Besteak beste, deshumanizatutakoa humanizatzeko transformazio prozesu artistikoan datzan ariketa bat dago bi proposamen didaktikoetan. Gerra Zibilaren hasieran kokatzen den proposamenean hitzak transformatzetik gerra hegazkinak transformatzera pasako dira ikasleak. Hona ariketaren deskribapena:



2. irudia: Hegazkinak zatikatzen.

## HITZEN TRANSFORMAZIOTIK OBJEKTUEN TRANSFORMAZIORA

**Materiala:** Boligrafoa, margoak, papera, guraizeak, kola, artikulazioetarako txintxeta enkuadernagailuak, Gernika bonbardatu zuten hegazkinen kopiak eta gizaki irudiak ageri diren aldizkariak.

**Espazioa:** Aulki eta mahaiez gain, espazio huts bat izango duen gela.

**Denboralizazioa:** 20 minutu.

**Taldekatzea:** Binaka eta talde handian.

**Garapena:** Metaforetatik neologismoen esparrura pasatuz, ariketa honetan ikasleek aukera izango dute hitz bat oinarri hartuta bestelako hitz berriak sortzeko, kategoria ere definituz (izena, adjektiboa, aditza eta abar). Aurreko ariketan bezala, hitzaren esanahi edo definizioa asmatu beharko dute baina beste inolako baldintzarik gabe, sormena erabat libre utziz. Transformatze ariketa hitzetatik objektuetara pasatuz, ikasleek aukera izango dute hiltzeko makinak izaki bizidun bihurtzeko, literaturatik arte plastikoetara igaroz.

1. “...sugandilak, ehunzangoak, bareak...” (17. or.) ostean etengo dute irakurketa eta, binaka, izen bat hautatu beharko dute ikasleek “Hegazkinak ikusten ditu zerua marrazten” (11. or.) esalditik irakurketa eten duten unera bitarteko testu-fragmentuetan. Bikote bakoitzak hitz ezberdina hautatu beharko du. Ondoren, hitzaren hizkien hurrenkera goitik behera irauliz hitz berriak sortu beharko dituzte. Adibidez: ehunzangoak > hangokanuze> kanegozahun > ...

2. Hitz horiek izenak, adjektiboak edo aditzak diren erabaki eta definizioa asmatu beharko dute (zenbat eta zentzugabeagoa izan, hobe). Adib.: hangokanuze (iz.): iragan etorkizuneko gertakizun misteriotsua; hankegozaun (iz.): hankak eta hegoak dauzkan eta zaunka egiten duen animalia.

Ondoren, hitz berriak eta horien definizioak talde handian partekatuko dituzte eta gainerako taldekideek asmatu beharko dute zein hitz dagoen asmatutakoen oinarrian.

3. Desegite mekanismo berdina jarraituz, ikasle bakoitzari Euskal Herriko herriak bonbardatu zituzten hegazkinen irudiak banatuko dizkiogu (ikus «Ikasgelarako baliabideak») eta, guraizeak, kola, margoak eta txintxeta enkuadernagailuak erabiliz, horiek desegin edo desmuntatu beharko dituzte intsektu tankerako bizidun bihurtzeko. Amaitzeko, eta nahi izatekotan, norberaren *alter-egoa* litzatekeen intsektuari gizakien elementuak itsats dakizkioke, aldizkarietatik ateratako pertsona-irudiak moztuz eta pusketak erabiliz.

Literatur testuaren irakurketan zehar, ariketen ostean “Gogoetarako unea” izendatutako atalak txertatu ditugu, egindako prozesuaren esanahiaz hausnartzeko, irakurritakoak aurrez landutako testuinguruarekin lotzeko eta norberaren pentsamenduak eta emozioak plazaratzeko. Era berean, une hauek egokiak izan daitezke ebaluazio figuroanalogikoa txertatzeko, ikasleak proposamen didaktikoa nola jarraitzen eta bizitzen ari diren ikusteko. Hona deskribatu berri den jardueraren osteko gogoetarako unearen planteamendua, adibide gisa:

**Gogoetarako unea:** Ikasleei azalduko diegu egin dutena transformazio prozesu bat dela. Jarraian, egindako jardueraz hausnartzeko era honetako galderak egingo dizkiegu: *Zer sentitzen duzue hori eginda? Zer zentzu ematen diozue transformazio ekintza horri?* Haien erantzunetatik abiatuta, ondorioztatu nahi dugu pertsonak hiltzeko makina bat desegin eta bizidun edo pertsona bihurtu dutela, ekintza sinboliko humanizatzaile eta bakezalea eginez eta iraganaren memoria aitortuz.

### **Azken hitza: orain arteko emaitzak eta etorkizuneko ibilbidea**

*Artearen Memoria* material didaktikoa sortzeko prozesuan egindako urratsei esker, oinarri teoriko-metodologiko sendoa duen diseinua osatu dugu. Azken emaitzak gure helburu nagusiak betetzen ditu:

- Artelanak eta adierazpen artistikoa izatea ikergai nahiz ikaskuntzarako bide nagusia, bestelako euskarriekin konbinatuz eta informazio entziklopediko-historiografikoa osagarri gisa erabiliz.
- Gaur egungo curriculumarekin bat egiten duen diziplinarteko proposamena izatea.
- Lehen Hezkuntzako ikasleentzako baliagarri izatea, nahiz eta ikasle helduagoentzat ere egokia izan.
- Baliagarri izatea Euskal Herrian eragin sakona izan duten askotariko gatazken memoria lantzeko.
- Planteamendua aski malgua izatea euskarazko hezkuntza dagoen ezein lurraldetan erabilgarri izan dadin eta irakasleriak bere egin dezan.

Diseinatutako materialaren planteamendua egokia zela ikusi genuen proposamen didaktikoak Errenteriako Herri Arte eskolan martxan jarri genituenean. Bi ikasle talde izan genituen horretarako eta bakoitzarekin proposamen didaktiko bat jarri genuen martxan. Saio bakoitzaren ostean haurrak banaka edo talde txikitik hartzen genituen eta

“Gogoetarako unea” ataleko galderak egiten genizkien. Horrela, ikusi ahal izan genuen zer zen hurrek egindako jardueretatik abiatuta ulertu eta hausnartu zutena. Oro har, esan dezakegu proposatutako ariketak baliagarri izan direla bilatzen genituen ikaskuntza eta hausnarketa prozesuak gidatzeko, nahiz eta zenbait ariketetan hobekuntzarako behar batzuk ere hauteman ditugun. Era berean, Herri Arte eskolan egindako lana amaitu ostean, azken elkarrizketa bat egin genuen hurrekin, aurreko formatu berean; prozesua nola baloratzen zuten eta zertarako balio izan zien galdetu genien. Haurren balorazioak positiboak izan ziren eta bereziki azpimarratu zuten gatazkak lantzeko modu ezberdina erabiltzearen alderdi onuragarria, bereziki pertsonen azalean jartzeari eta emozioak arakatzeari dagokionez.

Bi proposamen didaktikoetan behar ziren aldaketak egin ostean, Erein argitaletxeko taldearekin elkarlanean, maketatze bidean da *Artearen Memoria* material didaktikoa, eta 2025. urtean izango da kalean. Apustu pedagogikoaren tamainaz, inplikazioez eta zailtasun praktikoez ohartuta, asmoa dugu materialari buruzko formakuntzak eskaintzeko eta proposatzen dugun metodoa aplikatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko buzoia irekitzeko gure webgunean. Era berean, materiala beste testuinguru batzuetan ere martxan jartzeko asmoa daukagu, baita erabiliko duten irakasleekin esperientziak partekatzeko foroa irekitzekoa ere.

### **Aipatutako iturri bligorafikoak**

77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Eusko Jaurlaritzak.

Assmann, Jan. (2008). Communicative and Cultural Memory. Astrid Erll & Ansgar Nünning (arg.), *Media and Cultural Memory*. Berlin: Walter de Gruyter, 109–118.

Barton, Georgina. (2015). Arts-based educational research in the early years. *International Research in Early Childhood Education*, Vol. 6, No. 1, 62-78.

Endacott Jason L., Warren Jacob, Hackett-Hill Kathryn, and Alexandre Lalonde. (2023). *Arts integrated historical empathy: Preservice teachers' engagement with pluralistic lived experiences and efforts toward instructional application*. *Theory & Research in Social Education*, 1-44. DOI: 10.1080/00933104.2023.2279157



Erl, Astrid. (2011). *Memory in Culture*. Hampshire: Palgrave MacMillan.

Erl, Astrid. (2008). Cultural Memory Studies: An Introduction. Astrid Erl & Ansgar Nünning (arg.), *Media and Cultural Memory*. Berlin: Walter de Gruyter, 1–15.

Leavy, Patricia. (2021, 3. argitalpena). *Method Meets Art*. Routledge.

Liamputtong, P., & Rumbold, J. (2008). *Knowing differently: Arts-based and collaborative research methods*. New York, USA: Nova Science Publishers, Inc.